

Alegrantziaren alde

Behin baino gehiagotan esana dut orrialde hauetan bertan “geure garaikoe-gia” naizela, askotan etor-tzen zaidala burura –nahiz eta garai hauetan bizi– iragane-kiko grinaren bat izateko gogoia. Ez dakit irrika latindar bat den, nahi greziar bat den, edo nahi baduzue –ez legoke gaizki– Erdi Aro arabiar-islamiarrekiko joeraren bat den. Baina ez du modernoa izan behar, eta gaurko garaiekin aritu behar dugu gora eta behera. Modernotasuna, Iraultza eta hortik eratorritako gaiak erabili ditugu, azken honetan feminismoarena kasu.

Umberto Eco sortu zuen dikotomia hartatik lehenengoa izanik, bigarrenetako izatera pasa dut nire burua. Bai, gaztetan apokaliptiko bat nintzen, eta orain, integratua izatera behartzen dut nire burua. Baiki. Garai ilunak bizi ditugu, krudelak, jendea erruz hiltzen da, dugun Mendebal-detto hau eraikitzeke inoiz baino jende gehiago hil zen bi Mundu Gerratetan, gure onurak beste askoren gainean, literal-ki, eraikita daude baina, hala ere, zer esanen dizuet, integratu bat izan beharra dut.

Iraganeko paradisu horietakoren batean nire edadearekin hilik izanen nintzen, eta gaur egungo Afrikako lurralde askotan baita ere; nire grinak urkamendian bukatuko zuten, edo gartzelaren batean, edo kasurik hoberenean norbaiten apeta gaiztoen menpe; eta, jakina, orain naizen baino askoz pobregoa izanen nintzen, gizateria bera zen pobregoa. Ez, zaila suertatzen zait progresoa sinestea, baina ez nago prest nire burua engainatzeko, gezurra da “iragan garai oro zen hobea” dioen leloa.

“Oraina dugu bizitzeko modu bakarra” beste hark esaten zuen bezala. Kontua da



JUDIT FERNANDEZ

Juanjo Olasagarre

Agirre

Rodriguez

zer egiten dugun horrekin, eta Sarrionandiak dioen bezala “zer egiten dugun egiten diguten horrekin”. Izan ere, beti eginen digute zerbait.

Bai, “euskaldun izatea” egin digute. Eta susmoa dut buelta gehiegi ematen dizkio-gula ustez egin diguten horri, zilari begira bizi garela. Hala-ber norbaitek pentsa dezake niri “egin didaten” beste zer-

baiti, gaytasunari, gehiegi begiratzen diodala. Eta zuzen legoke.

Duela egun batzuk lagun batek Aberri Eguna tangen desfilatu beharko genukeela esan nuelako kargu hartu zidan. Lagunaren minak sortutako harridura behin gainditurik aberriaren zentzu barregarriago bat bizi nahi nuela azaltzen saiatu nintzen, baina uste dut ez zidala ulertu.

Beste batzuek uste dute Mendebaldeko gure kulturaren kritika egiteko parada ederra dela gure bazter honetan jaiotza izana, erdigunetik ikusiko ez liratekeen gauzak antzemateko zorroztasuna-edo dugula. Ez dakit. Gehitxo iruditzen zait. Kontua da hemen eta orain bizitzea egokitu zaigula. Batzuk gizon, beste batzuk emakume,

batzuk euskaldun, beste batzuk erdaldun, batzuk abertzale, besteak ez, batzuk espainol, beste batzuk “basko”, batzuk hetero, beste batzuk homo. Eta horrela, entreteniturik esanen dute batzuek. “Entreteniturik, hil behar dugula ez ohar-tzeko” esanen luke Pascalek, zeinak gure esisten-tzia nazkanteaz ohar-tzeko ezer egin gabe bizitzeko gomendatzen baitzuen.

Zer eginen diogu! Bizitzea, hemen gaudenez, betebeharra da. Bizi gainera, alegrantzian Panikerrek dioen bezala tristura zazpi bekatu nagusitatik batekoa baita. Baina ez engaina, alegrantziak ere lana eskatzen du, horretara jarri eta tinko ekin. Tristura baino hobea da, hala ere. ■



Zaila suertatzen zait progresoa sinestea,

baina ez nago prest nire burua engainatzeko,

gezurra da ‘iragan garai oro zen hobea’

dioen leloa

